

 **A21**

2024

hauteskundeak  
elecciones



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

## Balidazio-taldea

---

- Álvaro Fernández San Nicolás.
- Dayana Álvarez Guerra.
- Erik Martínez Briones.
- Iker Pascual Larrinaga.
- Imanol Yébenes Pozo.
- Maialen Uriarte Oñaederra.
- Maren Iturbe Marín.
- Julen Mesa Sanz.

## Gidaren egilea

---

ErrazTEA, irismen kognitiboa bermatzeko lan egiten duen zerbitzu bat da.  
Apnabi Autismo Bizkaiaren parte da.

**Data:** 2024ko urtarrila.

## Prozedura hau izan da:

---

Irakurketa errazeko bertsioan aurkeztutako dokumentuak  
egokitu eta balidatu dira arau honen arabera:

- UNE 153101:2018 EX.
- UNE 153102:2018 EX.

## Aurkibidea

<b>1. Zer dira Euskadiko hauteskunde autonomikoak?</b>	<b>4 orrialdea</b>
<b>2. Nork bozka dezake?</b>	<b>5 orrialdea</b>
<b>3. Noren alde bozka dezakezu?</b>	<b>6 orrialdea</b>
<b>4. Nola bozkatu gobernatzeari nahi duzun pertsonei?</b>	<b>7 orrialdea</b>
<b>5. Nolakoa izan daiteke zure botoa?</b>	<b>8 orrialdea</b>
<b>6. Zer jakin behar duzu hauteskundearen aurretik?</b>	<b>10 orrialdea</b>
<b>7. Nola bozka dezakezu?</b>	<b>12 orrialdea</b>
<b>8. Zer da hauteslekua?</b>	<b>14 orrialdea</b>
<b>9. Nola bozka dezakezu posta bidez?</b>	<b>17 orrialdea</b>
<b>10. Zer aurkituko duzu hauteslekuan? 2024ko apirilaren 21ean?</b>	<b>20 orrialdea</b>
<b>11. Nola bozkatu hauteslekuan?</b>	<b>21 orrialdea</b>

## 1. Zer dira Euskadiko hauteskunde autonomikoak?

Euskadiko hauteskunde autonomikoetan Eusko Legebiltzarrean gure ordezkariak izatea nahi dugun pertsonen alde bozkatzen dugu.

Eusko Legebiltzarra 75 kidez osatuta dago.  
Lurralde historiko bakoitzeko 25:

- Araba
- Gipuzkoa
- Bizkaia

Eusko Legebiltzarreko kideek Lehendakaria aukeratzen dute.  
Lehendakaria Euskadiko presidentea da.  
Eusko Legebiltzarrak eginkizun hauek ditu:

- Legeak egiten ditu.
- Erkidegoko aurrekontuak onartzen ditu.
- Eusko Jaurlaritzak egiten duena kontrolatzen du.

## 2. Nork bozka dezake?

Bozkatzeko eskubidea

18 urtetik gorako pertsonak daukate.

Bozkatzeko, hautesle-eroldan egon behar duzu.

Desgaitasun intelektuala daukatenek ere bozkatu ahal dute.

2018. urtera arte lege bat zegoen eta horren arabera, desgaitasuna zeukaten pertsona batzuek ez zeukaten bozkatzeko eskubiderik. Lege hori aldatu zen.

Orri honetan irakur dezakezu nola lortu zen bozkatzeko eskubidea.

[Mi voto cuenta](#)

### 3. Noren alde bozka dezakezu?

Alderdi politiko asko daude.

Alderdi politikoak  
hauteskundeetara aurkezten dira.

Alderdi politikoak  
ideia berberak dituzten  
edo berdin pentsatzen duten  
pertsonez osatuta daude.

Alderdi politiko bakoitzak  
bere proposamena aurkezten du.

Proposamenak ideiak eta balioak dira,  
alderdi bakoitzak gobernatzeko dituenak.

Alderdien proposamenak  
dokumentu batean idatzita daude.  
Dokumentu hori hauteskunde-programa da.

Hauteskunde-programan agertzen da zer egin nahi duen  
alderdi politiko batek hauteskundeak irabazi eta Gobernura heltzen bada.

Euskadin alderdi politiko asko daude.  
Batzuek bakarrik lortzen dute gobernatzea  
edo Eusko Legebiltzarrean ordezkariak izatea.

## 4. Nola bozkatu gobernatzea nahi duzun pertsoneri?

Alderdi politiko bakoitzak bere boto-papera dauka.

Boto-papera orri bat da eta informazio hau dauka:

- Alderdi politikoaren izena.
- Bere marka edo logotipoa.  
Logotipoa sinbolo edo marrazki bat da eta alderdi politikoaren irudia da.
- Hauteskundeetara aurkezten diren pertsona guztien izena eta abizenak.

Hauteskunde-egunean aukeratu behar duzu botoa eman nahi diozun alderdi politikoaren boto-papera.

## 5. Nolakoa izan daiteke zure botoa?

Zure botoa hiru motatakoa izan daiteke:

1. Boto balioduna.
2. Boto zuria.
3. Boto baliogabea.

### 1. Boto balioduna:

Boto balioduna da bozkatu nahi duzun alderdi politikoaren boto-papera gutun-azal ofizial batean jartzen duzunean. Gutun-azal ofiziala **hautestontzian** sartu behar da.

### 2. Boto zuria:

Boto zuria da gutun-azalaren barruan boto-paperik jartzen ez duzunean. Hau da, gutun-azala hutsik entregatzen duzunean.

Horrek esan nahi du bozkatu nahi duzula, baina ez zatozela bat inongo alderdi politikoren ideiekin.

Boto zuriarekin, ez duzu inongo alderdi politikoren alde bozkutzen.





### 3. Boto baliogabea:

Boto-baliogabea da gutun-azalaren barruan boto-papera apurtuta, idatzita edo marratuta sartzen duzunean edo beste paper bat gutun-azalean.

Kasu horretan, zure botoak ez du kontatzen.

## 6. Zer jakin behar duzu hauteskunderen aurretik?

Bozka dezaketen pertsonak  
hautesle-errondan agertu behar dute.

Hautesle-errolda zerrenda bat da,  
bozkatzeko eskubidea daukaten pertsonen zerrenda.

Zerrenda horretan agertzen dira  
herri edo hiri batean bizi diren pertsonak.


Hautesle-erroldan agertzen diren  
pertsonek guztiak  
errolda-txartela jasotzen dute.

Errolda-txartela paper bat da  
eta etxera posta bidez bidaltzen dizute.

Errolda-txartelean  
hauteslekuaren helbidea agertzen da  
eta bozkatzera hautesleku horretara joan behar duzu.

Errolda-txartela honelakoa da:

**OFICINA DEL CENSO ELECTORAL**

**e**  900 343 232

En las listas electorales que se utilizarán en las próximas Elecciones figura Vd. inscrito en:  
Datozen Hauteskundeetan erabiliko diren zerrendetan honako honetan zaude izenemana

Municipio: BILBAO  
Udalerría:


Distrito: 04 Barrutia:	Sección: 021 Sekzioa:	Mesa: U Mahaia:
---------------------------	--------------------------	--------------------

Local electoral: BERRIO-OTXOA IKASTETXEA  
Hauteskunde-lekua: CALLE MENENDEZ Y PELAYO MARCELINO 25  
48006 BILBAO

Datos personales de su inscripción:  
Zure inskripzioaren datu pertsonalak:

Fecha de nacimiento: Jaoitze-data:	D.N.I.: N.A.N.:
---------------------------------------	--------------------

Delegación Provincial:  
Plaza del Ensanche, 3, bajo  
48009 Bilbao (Bizkaia)

  
4800321204

21-06-2023 48 - D1 - 0079937

Komeni da errolda-txartela zurekin eramatea bozketa-egunean.

Errolda-txartelean informazio hau agertzen da:  
hauteslekua  
eta zein mahaitan bozkatu behar duzun.

## 7. Nola bozka dezakezu?

Bozkatzeko bi modu dauzkazu:

1. Modu presentzian,  
hau da, aurrez aurre.
2. Posta bidez,  
hau da, gutun bidez.

### 1. Modu presentzian:

Pertsonak bozkatzera joaten dira beren hauteskunde-mahaia dagoen lekura 2024ko apirilaren 21ean eta beren botoa hautestontzian sartzen dute.

### 2. Posta bidez:

Pertsonak posta bidez bozkatzeko eska dezakete. Posta bidez bozkatzeko eska dezakete 2024ko otsailaren 27tik apirilaren 11ra bitartean.

Posta bidezko botoa eska dezakezu

Espainiako Correos-eko edozein bulegotan.

Zuk zeuk joan behar duzu posta bidezko botoa eskatzera

eta han erakutsi zure NANA, gidabaimena edo pasaportea.



## 8. Zer da hauteslekua?

Hauteslekua da 2024ko apirilaren 21ean.  
bozkatzera joan zaitezkeen lekua.

Bozkatzera joan behar duzun hauteslekuaren helbidea  
errolda-txartelean agertzen da.

Hauteslekuak hauek izan ahal dira:

- Ikastetxeak.
- Frontoiak eta kiroldegiak.
- Gizarte etxeak.

Gizarte etxeak dira leku batzuk  
non pertsona guztientzako hezkuntza-zerbitzuak,  
kultura edo arreta-zerbitzuak dauden.

Hauteslekuek irisgarriak izan behar dute  
desgaitasuna duten pertsonentzat.

Leku edo eremu bat irisgarria da  
horretara sartzera edo hori erabiltzea erraza bada.

Laguntza eskatu ahal diozu  
zure konfiantzako pertsona bati bozkatzera joateko.

Hauteslekuan hauteskunde-mahaiak daude.

Hauteskunde-mahaia  
pertsona-talde bat da  
eta horiek aukeratuak izan dira hauteskundeetan botoak jasotzeko.

Hauteskunde-mahaiko pertsonak  
botoak zenbatu eta bozketa ondo doala kontrolatzen dute.

Pertsona horiek dira:

- Lehendakari 1.
- Bokal 2.

Hauteskunde-mahaietan dauden pertsonak  
lagundu behar dute  
desgaitasuna daukaten pertsonak  
beren kabuz eta behar dituzten laguntzekin  
bozkatu ahal izan dezaten.

Udalek  
zozketa bidez aukeratzen dituzte  
hauteskunde-mahaietako kideak.

Aukeratutakoek etxean gutun bat jasotzen dute.

Gutun hori jasotzen baduzu,  
hauteskunde-mahaiko kidea izan behar duzu.

Desgaitasun bat badaukazu  
eta mahaian parte hartu nahi ez baduzu,  
zure desgaitasun-agiria aurkeztu behar duzu.

Desgaitasun-agiria aurkeztu behar duzu  
Eskualdeko hauteskunde-batzordean,  
gutuna jasotzen duzunik  
7 eguneko epean.

Eskualdeko hauteskunde-batzordeak zihurtatu behar du  
hauteskundeak modu legalean eta egokian  
egiten direla.

Zure eskualdeko hauteskunde-batzordea non dagoen jakiteko,  
sakatu zure lurraldearen izenaren gainean:

- [Araba](#)
- [Gipuzkoa](#)
- [Bizkaia](#)



## 9. Nola bozka dezakezu posta bidez?

Ezin bazara hauteskunde-egunean  
hauteslekura bozkatzera joan,  
posta bidez bozka dezakezu.

Posta bidez bozkatzeko epe batzuk daude.

Garrantzitsua da jakitea  
zer epe daukagun posta bidez bozkatzeko.

Euskadiko hauteskunde autonomikoetan  
posta bidezko botoa eska dezakezu  
2024ko apirilaren 11ra arte.

Posta bidez bozkatzeko 3 urratsi jarraitu behar diezu  
eta oso inportanteak dira.

Urrats hauei jarraitu behar diezu:

### 1. urratsa:

Posta bidezko botoa eskatu behar duzu  
Correos-eko bulego batean.

Posta bidezko botoa eskatzeko,  
zure NANA, pasaportea edo gidabaimena  
erakutsi behar duzu.

Agiri horiek originalak izan behar dute.  
Gero, boto-eskabidea bete behar duzu.



Eskabidea, eskaera bat egitea da.

Boto-eskabidea Correos-eko bulegoan emango dizute.

## 2. urratsa:

Egun batzuk geroago,

postariak etxera eramango dizu

gutun-azal handi bat, eta horren barruan dokumentu hauek:

- Jarraibideen orri bat.
- Alderdi guztien boto-paperak.
- Gutun-azal bat boto-paper bat sartzeko, botoa eman nahi diozun alderdiaren boto-papera.
- Zure errolda-ziurtagiria.
- Hauteskunde-mahaiari buruzko informazioa daukan gutun-azal bat.

Dokumentu horiek zure etxera helduko dira.

Postaria doanean

etxean ez bazaude,

abisu bat utziko dizute

gutun-azala Correos-eko bulego batean jasotzeko.

Dokumentu horiek zuk bakarrik jaso ahal dituzu.

### 3. urratsa:

Botoa eman nahi diozun alderdiaren boto-papera gutun-azalaren barruan sartuta duzunean, gutun-azala Correos-eko bulego batera eraman behar duzu.

Ez bota inoiz kaleko postontzi batean.  
Hori egiten baduzu, zure botoa baliogabea izango da.

Posta bidez bozkatzen baduzu, hauteskunde-egunean ezin zara hauteskunde-mahaira bozkatzera joan.

Posta bidez bozkatzea doakoa da.

## 10. Zer aurkituko duzu hauteslekuan 2024ko apirilaren 21ean?

Hauteskunde-egunean hauteslekuan hauek aurkituko dituzu:

- Boto-paperak,  
hauteskundeetan parte hartzen duten alderdi guztienak.  
Gutun-azal ofizialak ere bai,  
aukeratzen duzun boto-papera sartzeko.
- Bozketa-kabinak,  
botoa eman nahi diozun alderdi politikoaren boto-papera hartzeko  
eta gutun-azal ofizialean sartzeko, beste inork ikusi gabe.
- Hauteskunde-mahaiak eta, horietan, bozkatzeko hautestontziak.

## 11. Nola bozkatu hauteslekuan?

2024ko apirilaren 21ean bozkatzeko urrats batzuei jarraitu behar diezu.

Urrats horiek oso garrantzitsuak dira.

Hauek dira:

### 1. urratsa:

Hauteslekuak goizeko 9etan irekitzen dute arratsaldeko 8ak arte.

Bozkatzeko dagokizun hauteslekura ordutegi horren barruan joan behar duzu.

### 2. urratsa:

Boto-paperak eta gutun-azalak non dauden bilatu behar duzu.

Boto-paperak eta gutun-azalak mahai batean egoten dira edo bozketa-kabinan.

Zure botoa inork ez ikustea nahi baduzu, sar zaitetz bozketa-kabinan.

### 3. urratsa:

Botoa eman nahi diozun alderdi politikoaren boto-papera hartu.

Sartu boto-papera gutun-azalean.

Gutun-azalean boto-paper 1 bakarrik sartu behar duzu.

Komeni da gutun-azala ixtea.

### 4. urratsa:

Zoaz zure hauteskunde-mahaira erakutsi zure NANA, pasaporte edo gidabaimena mahaiaren erdialdean dagoen pertsonari.

Gogoratu eraman behar duzula zure NAN, pasaporte edo gidabaimen originala. Fotokopiak ez du balio.

Oso inportantea da gogoratzea zure NANA, pasaporte edo gidabaimena eraman behar duzula.

Mahaiko kideek egiaztatuko dute zure izena eta abizenak haien zerrendan daudela.

## 5. urratsa:

Mahaiko kideek esango dizute  
noiz bozka dezakezun.

Abisatzen dizutenean,  
sartu boto-papera barruan daukan gutun-azala hautestontzian.

Zalantzarik edo galderarik baduzu,  
eskatu laguntza  
hauteskunde-mahaietako kideei.  
Pertsona horiek lagunduko dizute.

Zorionak!

Bozkatu duzu.

Orain itxaron behar da  
emaitzak zenbatu arte, jakiteko  
zein alderdi politikok irabazi duen.

ErrazTEA zerbitzuarekin harremanetan jarri nahi baduzu,  
aukera hauek dauzkazu:



**Gure bulegoak helbide honetan daude:**

Sabino Arana 69.  
Bilbao. 48012.  
Bizkaia.



**Gure e-maila hau da:**

erraztea@apnabi.org



**Gure web-orria hau da:**

<https://erraztea.apnabi.eus/>



© Europa irakurketa erraza: Inclusion Europe.  
Informazioa gehiago [www.easy-to-read.eu](http://www.easy-to-read.eu)

© ErrazTEA [www.erraztea.apnabi.eus](http://www.erraztea.apnabi.eus)



Irakurketa erraza idazteko teknika bat da, irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonen ulermena errazten diena.